



ALDEZ AURREKO KONTSULTA. GAIA: ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA IKUSKATZAILETZAREN ARAUTEGIA ONARTZEN DUEN EKAINAREN 6KO 41/2006 FORU DEKRETUA ALDATZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA.

Bat etorri zedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuaz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) arauaren helburuak
- d) egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, Arabako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskatzailearen Arautegia aldatuko duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, ekainaren 16ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	41/2006 FORU DEKRETUA, EKAINAREN 6KOA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA IKUSKATZAILETZAREN ARAUTEGIA ONESTEN DUENA.
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	<p>Alderdi tekniko eta edukikoak berrikusi eta eguneratzea.</p> <p>Araudi horretan xedapen berriak sartu nahi dira, Administrazioaren jarduna eraginkorragoa izan dadin, herritarren oinarrizko eskubideak kaltetu gabe.</p>
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	<p>Zerga Ikuskatzaitzaren Arautegia berrikusi eta eguneratu beharra dago.</p>
HELBURUAK	<p>Arautegia berrikusi eta eguneratzea.</p>
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	<p>Uste da ez dagoela beste aukera egokirik.</p>